Azken legealdietan, Eusko Jaurlaritzak ahalegin handia egin du administrazio-prozeduretan izapide elektronikoak garatu eta martxan jar daitezen. Lan horren ondorioz, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren sailek, organismoek eta erakunde publikoek kudeatzen dituzten prozeduren artean bi heren inguru prest daude horien gaineko interesa duten pertsonekin bide elektronikoen bitartez aritzeko eta izapide guztiak elektronikoki egiteko, are erakundearen barruan ere. Oraindik oso-osorik elektronikoki izapidetu ezin diren prozeduren heren hori digitalizatze aldera, Zerbitzuen Digitalizazio Plana (2018-2020 ZDP) egin da. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzan oraindik beren digitalizazio-maila objektiboa lortu ez duten zerbitzuen eta prozesuen digitalizazioa gauzatzeko aukera planteatu da.

*Durante las últimas legislaturas el Gobierno Vasco ha realizado un esfuerzo importante para el desarrollo y la puesta en marcha de la tramitación electrónica de los procedimientos administrativos, fruto del cual aproximadamente dos terceras partes de los procedimientos gestionados por los Departamentos, Organismos y Entes Públicos dependientes del Gobierno Vasco están disponibles para la interacción electrónica con las personas interesadas en los mismos y pueden tramitarse de forma íntegramente electrónica también en el ámbito interno de la organización. Con objeto de digitalizar esa tercera parte de procedimientos que aún no pueden tramitarse de forma íntegramente electrónica, se ha elaborado el Plan de Digitalización de Servicios (PDS 2018-2020) que plantea llevar a cabo la digitalización de los servicios y procedimientos del Gobierno Vasco que aún no han alcanzado su nivel objetivo de digitalización.*

Izapidetze elektronikoaren plataformetako tresna edo moduluen arteko integrazioa burutu da, interesdunen eta beren ordezkarien kudeaketan. Plataformako tresna edo modulu guztiek pertsona interesdunen eta horien ordezkarien datu-base berbera partekatzen dute.

*Se ha completado la integración entre las diferentes herramientas o módulos de la plataforma de tramitación electrónica en cuanto a la gestión de las personas interesadas y sus representantes. Todas las herramientas o módulos de la plataforma comparten una misma base de datos de personas interesadas y sus representantes.*

Izapidetze elektronikoari buruzko hainbat prestakuntza-jardunaldi eman dira, Euskadiko elkarte-sareko hainbat ordezkariekin batera antolatuta. Jardunaldi horien helburua zera izan da: erakunde horiei prestakuntza ematea administrazioarekin izapideak gauzatzeko prozesuetan. Euskadin dauden 24.000 elkarte inguruk izapideak internet bidez soilik egin beharko dituzte, administrazio-prozeduraren gainean indarrean den araudi berriaren arabera.

*Se han impartido numerosas jornadas de formación sobre tramitación electrónica organizadas junto a una amplia representación del asociacionismo de Euskadi. El objetivo de estas jornadas ha sido formar a estas entidades en los distintos procesos de tramitación con la Administración. Las cerca de 24.000 asociaciones que hay en Euskadi deberán tramitar exclusivamente on-line, de acuerdo con la nueva normativa vigente en materia de procedimiento administrativo.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren artxibo elektronikoa, Dokusi, indartu egin da, agiri elektroniko administrazioak eta espediente elektroniko baten parte izan daitekeen beste edozein agiri elektroniko gorde eta administratzeko zerbitzu komun gisa. Artxibo elektronikoa erabilera komunekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko organo guztientzat. 2018an, Dokusin guztira 23.545.883 agiri kudeatu dira.

*El archivo electrónico de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, Dokusi, se ha consolidado como servicio común para el almacenamiento y administración de los documentos electrónicos administrativos y cualquier otro documento electrónico susceptible de formar parte de un expediente electrónico. El archivo electrónico es de uso común único para todos los órganos de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En 2018 Dokusi ha alcanzado un total de 23.545.883 de documentos.*

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek 2018an lankidetza-hitzarmena sinatu dute administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak emateko elkarri. Administrazioen arteko eta horien eta herritarren arteko harreman elektronikoa bermatzeko urrats garrantzitsua da. Administrazio elektronikoko proiektuen koordinazioa sustatu nahi da, haien eraginkortasunik eta efizientziarik handiena lortzeko asmoz eta interes publikoa asetzeko azken helburuarekin.

*El Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de Araba y Gipuzkoa han firmado en 2018 un convenio de colaboración para para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica. Es un paso importante para garantizar la relación electrónica entre las administraciones, y entre éstas y la ciudadanía. Se pretende promover la coordinación de los proyectos de administración electrónica, con el objetivo de conseguir su máxima eficacia y eficiencia y con la finalidad última de satisfacer el interés público.*

Euskadiko administrazio publikoen elkarreragingarritasuneko sistema orokorra sustatu da, administrazio desberdinen artean datuak trukatu daitezen, eta, hala, herritarrek ez dezaten zertan paperezko ziurtagiririk aurkeztu. Elkarreragingarritasuneko zerbitzu horiek aukera emango diete administrazio publikoei datuak eta ziurtagiriak trukatzeko; zehazki, horiek parte hartzen

*Se ha impulsado el sistema general de interoperabilidad de las administraciones públicas de Euskadi que tiene por objeto facilitar los intercambios de datos entre las distintas administraciones para evitar que la ciudadanía tenga que aportar certificados en papel. Estos servicios de interoperabilidad van a permitir a las administraciones públicas intercambiarse los datos y certificados requeridos*

duten administrazio-prozedurak izapidetzean enpresa eta erakundeei nahiz herritarrei eskatzen zaizkien datuak eta ziurtagiriak trukatuko dituzte, herritarrek paperezko ziurtagiriak aurkeztu behar izanik eduki ez dezaten, eta, era berean, administrazio-prozeduraren legezko berme guztiak eta datuen babesa ziurtatuz. 2018an guztira 10.592.733 datu-transmisio egin dira elkarreragingarritasuneko plataformaren bidez.

*a la ciudadanía y a las empresas e instituciones en la tramitación de los procedimientos administrativos en los que éstos participan, evitando que la ciudadanía tenga que aportar certificados en papel y, al mismo tiempo, asegurando todas las garantías legales del procedimiento administrativo y la protección de los datos. En 2018 se han realizado un total de 10.592.733 transmisiones de datos a través de la plataforma de interoperabilidad.*

“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Instituzionaleko kide anitzeko organoen ebaluazioa eta hobekuntza” izeneko proiektuaren esparruan, kide anitzeko organoen inbentario zehatza egin da, eta organo horietako bakoitzari buruzko informazioa jasotzeko eredu-fitxa bat eta organo horien kideen alta prestatu dira.

*En el marco del proyecto “Evaluación y mejora de los órganos colegiados de la Administración General de la CAE y su Administración Institucional” se ha obtenido un inventario exhaustivo de los órganos colegiados y, para cada uno de ellos, una ficha de información tipo así como el alta de las personas miembros de dichos órganos.*

### 4. ADMINISTRAZIOAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA, HERRITARREK ETA PROFESIONALEK HAREN DISEINUAN PARTE HAR DEZATEN BULTZATUZ

### *4. PROMOVER LA INNOVACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN INVOLUCRANDO A LA CIUDADANÍA Y A LOS PROFESIONALES EN EL DISEÑO*

2018an, Gobernu Irekirako Aliantzak (Open Government Partnership - OGP) Euskadi hautatu du Tokiko Gobernuen Programan parte hartuko duten mundu osoko 20 eskualdeen artean. Gobernu Irekirako Aliantza erreferentziako nazioarteko erakunde bat da, eta gobernu “irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentikorragoak” sustatzeko tresnak garatzea eta ebaluatzea da bere helburua.

*En 2018 la Alianza para el Gobierno Abierto (Open Government Partnership – OGP) ha seleccionado a Euskadi como una de las 20 regiones de todo el mundo que participarán en su Programa para Gobiernos Locales. La Alianza para el Gobierno Abierto es una organización internacional de referencia cuyo fin es evaluar y desarrollar mecanismos para fomentar gobiernos “más abiertos, responsables y sensibles a la ciudadanía”.*

OGPren Ekintza Planaren esparruan, Eusko Jaurlaritza “Open data Euskadi eta Linked open data” proiektuaren liderra da, eta honako hau du xede: Euskadiko berrerabiltzaileek (unibertsitateko ikertzaileak barne) eta herritarrek eskatutako datuen multzoak identifikatzea eta euskal administrazioek datu horiek normalizatu eta elkarrekin lotzea eta, horretarako, bistaratzeak eta erakundearteko zerbitzu berriak garatzea.

*En el marco del Plan de Acción de la OGP, el Gobierno Vasco lidera el proyecto “Open data Euskadi y Linked open data” que pretende identificar conjuntos de datos demandados por el colectivo de reutilizadores/as en Euskadi (incluyendo personal de investigación de las universidades) y por la ciudadanía, y normalizar y enlazar dichos datos por parte de las administraciones vascas, desarrollando visualizaciones y servicios nuevos interinstitucionales.*

Era berean, OGPren Ekintza Planaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak beste proiektu bat zuzentzen du: Euskadiko herritarren partaidetzako I-lab proiektua, zeinak herritarren partaidetzaren gainean berrikuntza publikoko laborategi bat sortu nahi duen.

*Así mismo, en el marco del Plan de Acción de la OGP, el Gobierno Vasco lidera otro proyecto el proyecto I-lab de participación ciudadana en Euskadi que es “El ilab de participación ciudadana en Euskadi” que pretende crear un laboratorio de innovación pública sobre participación ciudadana.*

2018an, lotutako datuen plataforma garatu ondoren, honako proiektu hauek sustatu ditugu Zientzia eta Teknologia Planaren esparruan: Euskalmet-eko web sematikoa eta datu meteorologikoak irekitzea, erakunde, pertsona eta ekipamenduen direktorioa bideratzea, eta bistaratzeen ataria kudeatzea.

*Durante 2018, tras desarrollar la plataforma de datos enlazados, hemos impulsado en el marco del Plan de Ciencia y Tecnología los siguientes proyectos: Apertura de datos meteorológicos y web semántica de Euskalmet, Directorio de entidades, personas y equipamientos y el portal de visualizaciones.*

Herritarren partaidetzako proiektuak sustatzen jarraitu da: Bherria; herritartasun berri baterako Agora; edo Etxebizitza, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren komunikazio eta partaidetzarako plataforma berria.

*Se ha continuado impulsando proyectos de participación ciudadana: Bherria; Agora para una nueva ciudadanía o Etxebizitza, la nueva plataforma de comunicación y participación del Observatorio Vasco de la Vivienda.*

**PROGRAMA**

1217 ERAKUNDEEN HARREMANAK

ARDURADUNA

02 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA

ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDEA

**HELBURUA**

1. GOBERNU-KONTSEILUAREN JARDUERA ANTOLATU ETA PRESTATZEA
2. LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA
3. ARARTEAKOAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA
4. AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN XEDAPENAK ETA EGINTZAK ARGITARATZEA
5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRU GOBERNU-MAILAK EGITURATZEKO PROZESUA AMAITZEA
6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EREMUKO FUNDAZIOEI APLIKATZEN ZAIEN ESPARRU JURIDIKOA ARGITZEA
7. ESKAINITAKO ZERBITZUAK PROZEDURAK TELEMATIZATUZ MODERNIZATZEA

**BETETZE MAILA**

**1. GOBERNU-KONTSEILUAREN JARDUERA ANTOLATU ETA PRESTATZEA**

Helburu honen barruan jarduera hauek gauzatu dira:

Jaurlaritzako kide anitzeko organoen bilerekin loturiko jardunei dagokienez, Gobernu Kontseilurako 48 gai-zerrenda prestatu dira, bakoitzari dagozkion aktekin batera. Halaber, 1.149 espediente berrikusi dira eta dagozkien txostenak egin dira. Era berean, Gobernu Kontseiluak onartutako gaiei buruzko 489 ziurtagiri egin dira, 41 gai izapidetu dira Eusko Legebiltzarrerako eta 366 agiri bidali dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira.

Halaber, 2018an datuak ezerezteko 7 espediente tramitatu dira.

**2. LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA**

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko

***PROGRAMA***

*1217 RELACIONES INSTITUCIONALES*

***RESPONSABLE***

*02 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO*

*VICECONSEJERO DE RELACIONES INSTITUCIONALES*

***OBJETIVO***

*1. ORDENAR Y PREPARAR LA ACTIVIDAD DEL CONSEJO DE GOBIERNO*
*2. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO*
*3. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL ARARTEKO*
*4. PUBLICAR LAS DISPOSICIONES Y ACTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA*
*5. CULMINAR EL PROCESO DE ARTICULACIÓN DE LOS TRES NIVELES DE GOBIERNO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*
*6. CLARIFICACIÓN DEL MARCO JURÍDICO APLICABLE A LAS FUNDACIONES DEL ÁMBITO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*
*7. MODERNIZACIÓN DE LOS SERVICIOS OFRECIDOS A TRAVÉS DE LA TELEMATIZACIÓN DE LOS PROCEDIMIENTOS*

**GRADO DE CUMPLIMIENTO**

***1. ORDENAR Y PREPARAR LA ACTIVIDAD DEL CONSEJO DE GOBIERNO***

*Dentro de este objetivo se han realizado las actividades siguientes:*

*Por lo que respecta a las actuaciones relacionadas con las sesiones de los órganos del Gobierno, se han elaborado 48 órdenes del día del Consejo de Gobierno, con sus Actas correspondientes, revisando un total de 1.149 asuntos y elaborando los respectivos informes. Asimismo, se han expedido 489 certificaciones de los asuntos aprobados por el Consejo de Gobierno; se han tramitado al Parlamento Vasco 41 asuntos y se han remitido al Boletín Oficial del País Vasco 366 documentos.*

*Asimismo, durante el año 2018 se han tramitado 7 expedientes de cancelación de datos.*

***2. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO***

*La centralización en la Dirección de la Secretaría del*

Harremanetarako Zuzendaritzan zentralizatu dira Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko komunikazio guztiak. Horrek harremanak erraztea bermatzen du, izan ere, bana-banako jarraipenaren bidez, kasu bakoitzean eskatutako epeak betetzen direla zaintzen da; orobat bematzen du beharreko laguntza ematea eta, hala dagokionean, Jaurlaritzak legebiltzarraren ekimenei buruzko akordioak har ditzan proposatzea.

Idazkaritza horrek Eusko Legebiltzarraren ekimen, erabaki eta jakinarazpenak izapidetu ditu Jaurlaritzaren hainbat organotan; eta halako jakinarazpen hauek bidali ditu Legebiltzarrera: lege-proiektuekin zerikusia duten jakinarazpenak eta gaiak, Osoko Bilkuran edo Batzordean eztabaida daitezen, galderei eta informazio-eskaerei emandako erantzunak; Lurralde Historikoekin eta Autonomia-Erkidekoekin egindako hitzarmenak, eta, oro har, legezko eta arauzko xedapenetan aurreikusitako akordioak eta komunikazioak (5.858 espediente guztira).

Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko komunikazioa hobetu egin da "fitxategiak trukatzeko plataforma" (PIF) izenekoa ezarri eta martxan jartzeagatik, honek ohiko posta ordezkatu baitu, eta erakunde bien arteko bidalketei, besteak beste, segurtasun eta babes handiagoa eman die.

*Gobierno y de Relaciones con el Parlamento de todas las comunicaciones entre Gobierno y Parlamento garantiza que las relaciones sean fluidas, al velar, mediante un seguimiento individualizado, por el cumplimiento de los plazos exigidos en cada caso, prestar la asistencia técnica requerida y promover, en su caso, la adopción por el Gobierno de Acuerdos relativos a las iniciativas parlamentarias.*

*La citada Secretaría ha tramitado ante los distintos órganos del Gobierno iniciativas, acuerdos y comunicaciones procedentes del Parlamento Vasco y ha remitido a dicha Cámara todas las comunicaciones relacionadas con los Proyectos de Ley y asuntos para su debate en Pleno o en Comisión, las contestaciones a las preguntas y solicitudes de información, los convenios con los Territorios Históricos y Comunidades Autónomas y, en general, los acuerdos y comunicaciones previstas en las disposiciones legales y reglamentarias (5.858 expedientes en total).*

*La comunicación Gobierno-Parlamento se ha mejorado por la implantación y puesta en funcionamiento de la plataforma de intercambio de ficheros (PIF) que ha sustituido al correo electrónico tradicional otorgando, entre otros, mayor seguridad y protección a los envíos realizados entre ambas instituciones.*

### 3. ARARTEAKOAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA

Arartekoari dagokionez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak harremanetarako organo gisa jardun du, eta 757 gai izapidetu ditu, kexa, informazio-eskaera, gomendioei buruzko espedienteetatik eratorriak, hain zuzen ere. Espediente horiek kudeatzeko 2.715 komunikazio inguru izapidetu dira.

Modu berean, Arartekoaren espedienteak kudeatzeko informatika-aplikazio bat diseinatu dugu, eta Jaurlaritzako sail batekin proba pilotu bat egin ere. 2019ko urtarrilean sail guztietan ezartzea da dugun aurreikuspena.

### *3. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL ARARTEKO*

*En lo que respecta al Ararteko, la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento ha actuado como órgano de relación y ha tramitado 757 asuntos, derivados de expedientes relativos a quejas, solicitudes de información y recomendaciones. La gestión de dichos expedientes ha supuesto la tramitación de aproximadamente 2.406 comunicaciones.*

*Asimismo, se ha diseñado la aplicación informática a través de la cual se gestionarán los expedientes del Ararteko y se ha hecho una prueba piloto con un departamento del Gobierno. Se prevé su implantación para todos los departamentos en enero de 2019.*

### 4. AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN XEDAPENAK ETA EGINTZAK ARGITARATZEA

Autonomia Erkidegoaren xedapen eta ekintzen publizitate ofizialari dagokionez, 2018an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 250 zenbaki argitaratu dira euskaraz, eta beste hainbeste gaztelaniaz. Guztira, 59.367 orrialde argitaratu dira.

Horrez gainera, Aldizkariaren edizio elektronikoari dagozkion 26.712 pdf eta epub fitxategi kargatu dira sarean, Internet zein Intranet bidez.

EHAAren datu-base dokumentalari dagokionez (1936tik gaur egun artekoa) Internet zein Intranet bidez kontsulta daitekeena, 2018 urtean, 52.424 erregistro kargatu dira bi hizkuntzetan, xml, shtml, html eta idx formatuetan.

Bestalde, 7.788 dokumentu eragiketak egin dira. Hona

### *4. PUBLICAR LAS DISPOSICIONES Y ACTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA*

*Por lo que a la publicidad oficial de las disposiciones y actos de la Comunidad Autónoma respecta, durante el ejercicio 2018, se han publicado 250 números en euskera y 250 números en castellano del Boletín Oficial del País Vasco. Se han publicado un total de 59.367 páginas.*

*Por otra parte, se han cargado en Internet 26.712 ficheros pdf y epub correspondientes a la edición electrónica del Boletín a través de Internet e Intranet.*

*Asimismo, en cuanto a la base de datos documental del BOPV (desde 1936 hasta la actualidad) se refiere, cuya consulta se realiza a través de Internet e Intranet, se han cargado en el año 2018, 52.424 registros en ambos idiomas, correspondientes a los formatos xml, shtml, html e idx.*

*Por otra parte, se han realizado 7.788 operaciones*

hemen xehetasunak: 2.028 xedapen orokorrei eta beste xedapen batzuei dagozkie; 1.036 agintariei eta langileei; 2.184 iragarkien atalari; 3 Justiziaren Administrazioaren atalari; 2.539 aurreko eta ondoko erreferentziei; eta 24 kontsolidatutako testuei (48 hizkuntza bietan). Guztira, 5.201 dokumentu indizatu dira.

*documentales, con el siguiente detalle: 2.028 correspondientes a Disposiciones Generales y Otras Disposiciones; 1.036 de Autoridades y Personal; y 2.184 del apartado de Anuncios, 3 Administración de Justicia, 2.539 referencias anteriores y 24 textos consolidados (48 en ambos idiomas). En total, se han indizado 5.201 documentos entre ambos idiomas.*

Zerbitzari-atalari dagokionez, 2018ako Google Analytics aplikazioaren arabera 3.651.842 orrialde ikusi dira 1.505.642 egindako bisitetan. Ikusitako orrialde horietatik % 95,1 gazteleraz izan dira eta % 4,9 euskaraz.

*En cuanto a la sección del servidor, y según la aplicación Google Analytics, se han contabilizado para el año 2018 un total de 3.651.842 de páginas visualizadas en el 1.505.642 de visitas realizadas. De las páginas vistas, un 95,1% han sido en castellano y un 4,9% en euskera.*

Aldizkaria gaika jasotzeko zerbitzuaren harpidetzei dagokienez, 2018ko abenduaren 31n 5.985 harpidedun daude. 557 euskaraz (% 9,31) eta 5.428 gazteleraz (% 90,69).

*En el capítulo de la suscripción difusiva selectiva se contabilizan, a 31/12/2018, un total de 5.985 suscriptores, de los que 557 son en euskera (9,31%) y 5.428 en castellano (90,69%).*

Azkenik, 472 iragarki fakturatu dira.

*Por último, se han facturado 472 anuncios.*

## 5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRU GOBERNU-MAILAK EGITURATZEKO PROZESUA AMAITZEA

## *5. CULMINAR EL PROCESO DE ARTICULACIÓN DE LOS TRES NIVELES DE GOBIERNO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

1.- 2018an, Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak guztiz garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dekretu-proiektuetarik bi izapidetzen hasi ginen; zehazki, Lege horretan hizkuntza-kontuen inguruan aurreikusten den dekretu-proiektua eta udal-eskumenen klausula unibertsaletik eratorritako jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak arautzen dituen dekretu-proiektua. Bi dekretu-proiektuak utzi dira entzuteko izapidearen mende, eta kontsultak egin zaizkie toki-erakundeei, administrazio publikoei eta toki-erakundeen elkarte garrantzitsuenei.

*1.- Durante el año 2018, se ha procedido a iniciar la tramitación de dos de los proyectos de Decretos que la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales, prevé necesarios para culminar su desarrollo; en concreto, los proyectos de decretos relativos a los aspectos lingüísticos previstos en dicha Ley y el que regula el ejercicio de las actividades, servicios o prestaciones derivados de la cláusula universal de competencias municipales. Dichos proyectos de Decretos han sido sometidos a trámite de audiencia y consultas a las entidades locales, a las Administraciones Públicas, y a las Asociaciones más representativas de las entidades locales.*

Halaber, autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuan nazio-gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa garatzen duen dekretu-proiektua egiten hasi gara autonomia-erkidegoaren eremuan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian eta Toki Erakundeei buruzko Legean bertan jasotzen den aurreikuspena betetzeko xedez.

*Asimismo, se ha iniciado la elaboración del proyecto de Decreto que, en el ámbito de la Comunidad Autónoma, desarrolla el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, con el fin de dar cumplimiento a la previsión contenida en la disposición adicional segunda de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y en la propia Ley de Instituciones Locales.*

2.- Beste bi maila instituzionalekin egindako lankidetzaren barruan, tokiko esparru propioa sortzeari begira, Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua onetsi du Tokiko Politika Publikoen Kontseiluak, eta, era berean, gobernuko hiru mailen parte-hartze instituzionalarekin batera kide anitzeko organoak arrazionalizatzeko xedea duen lanari ekin dio Kontseiluaren baitan sorturiko Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialak.

*2.- Dentro de la colaboración con los otros dos niveles institucionales, con objeto de crear un marco local propio, el Consejo de Políticas Públicas Locales ha aprobado su Reglamento de Organización y Funcionamiento; y, asimismo, la Comisión Sectorial de Administraciones Públicas, creada en el seno del Consejo, ha iniciado el trabajo que tiene por objetivo la racionalización de órganos colegiados con participación institucional de los tres niveles de gobierno.*

## 6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EREMUKO FUNDAZIOEI APLIKATZEN ZAIEN ESPARRU JURIDIKOA ARGITZEA

## *6. CLARIFICACIÓN DEL MARCO JURÍDICO APLICABLE A LAS FUNDACIONES DEL ÁMBITO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

ELKARTEEKIN lotutako (6448) espediente izapidetu ditugu 2018.urtean: (915) inskripzio; (786) estatutu-aldaketa;

*En materia de ASOCIACIONES se han tramitado (6448) expedientes de inscripción en el año 2018: constituciones*

(147)desegite; (2792) zuzendaritza batzordearen aldaketa; (13) onura publikoko deklarazio.

*(915); modificaciones estatutarias (786); disoluciones (147); modificaciones de junta directiva (2792), declaraciones de utilidad pública (13).*

Gainera, 4506 espediente gehiago, zehaztu gabekoak, tramitatu egin dira.

*A este número se suman otro tipo de expedientes que no se detallan y que se elevan a 4506.*

Izan ere, 2018ko urriaren 2tik aurrera tramitazio elektronikoa derrigorrezkoa izanez, bai kontsultak nahiz telefono-deiak hazi izan dira.

*Asimismo son numerosas las llamadas telefónicas y consultas relativas a la tramitación electrónica obligatoria desde el pasado 2 de octubre de 2018.*

FUNDAZIOEKIN lotura duten (1348) espediente izapidetu ditugu 2018.urtean: fundazioak eratzeko (11); estatutuak aldatzeko (144); patronatua aldatzeko (176); ahalordetze-espedientea (70).

*En materia de FUNDACIONES se han tramitado (1348) expedientes en el año 2018: constituciones (11); modificaciones estatutarias (144), modificaciones de patronato (176) y apoderamientos (70).*

Gainera 947 espediente gehiago, zehaztu gabekoak, tramitatu egindira.

*A este número se suman otro tipo de expedientes que no se detallan y se elevan a 947.*

Izan ere, 2018ko urriaren 2tik aurrera tramitazio elektronikoa derrigorrezkoa izanez, bai kontsultak nahiz telefono-deiak hazi izan dira.

*Asimismo, han sido numerosas las llamadas telefónicas y consultas relativas a la tramitación electrónica obligatoria a partir del día 2 de octubre de 2018.*

Fundazioekin, abokatu bulegoekin eta Eusko jaurlaritzako beste sail batzuekin 200 bilera egin ditugu.

*Por último, se han llevado a cabo del orden de 200 reuniones con fundaciones, despachos de abogados y otros departamentos del gobierno vasco.*

Hainbat motatako jardun egin dira(326) PROFESIONALEN ELKARGO ETA KONTSEILUEI irekitako espedienteei lotutak: sorketak (3); zuzendaritza-batzorderako (890) eta estatutu- aldaketa (15).

*Por lo que respecta a los COLEGIOS Y CONSEJOS PROFESIONALES se han realizado 326 actuaciones varias de expedientes abiertos: creación (83); comunicación de junta directiva (90) y modificación estatutaria 815).*

Gainera, 218 espediente gehiago zehaztu gabekoak tramitatu egin dira.

*A este número se suman otro tipo de expedientes que no pueden ser detallados y que se elevan a un total de 218.*

## 7. ESKAINITAKO ZERBITZUAK PROZEDURAK TELEMATIZATUZ MODERNIZATZEA

## *7. MODERNIZACIÓN DE LOS SERVICIOS OFRECIDOS A TRAVÉS DE LA TELEMATIZACIÓN DE LOS PROCEDIMIENTOS*

Toki-araubidearen zerbitzuan, administrazio-prozedurak oso-osorik telematizatzera iristeko xedez egin da lan. Hala, izapide elektronikorako zerbitzu berri bat jarri da tokiko erakundeen eskura, alkatetzaren eta tokiko erakundeetako presidenteen akta-liburuak eta ebazpenak egiteko paper zenbakitua eskatu eta justifikatu ahal izateko. Halaber, nazio-gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioak izapide batzuetan administraziora telematikoki jotzeko aukera ahalbidetu da.

*En el servicio de régimen local, se ha trabajado en el objetivo de llegar a la telematización íntegra de los procedimientos administrativos. Así, se ha puesto a disposición de las entidades locales un nuevo servicio de tramitación electrónica para realizar la petición y justificación de papel numerado para la elaboración de libros de actas y resoluciones de alcaldía y presidentes de las entidades locales; así como, se ha posibilitado que, en algunos trámites, los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional puedan dirigirse a la Administración de manera telemática.*

**PROGRAMA**

1218 ARAUBIDE JURIDIKOA

**ARDURADUNA**

02 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA

ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDEA

**HELBURUA**

1. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN INTERESAK, ARAUAK ETA EGINTZAK DEFENDATZEA
2. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARAUAK ETA EGINTZAK ANTOLAMENDU JURIDIKORA AHALIK ETA GEHIEN EGOKITZEA
3. GARAPEN AUTONOMIKOA INDARTZEA ETA AZTERTZEA

**BETETZE MAILA**

**1. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN INTERESAK, ARAUAK ETA EGINTZAK DEFENDATZEA**

Auzibide Zuzendaritzan, 3.895 gai berri hasi dira, honako jurisdikzio hauen arabera banatuta: 2.551 administrazioarekiko auzi (horietatik, 2.050 prozedura laburtuak eta 501 ohikoak, 24 pertsonen oinarrizko eskubideak jurisdikzioan babestekoak, eta 2 sarrera baimentzekoak), 771 doako justiziakoak, 332 lan-arlokoak, 73 arlo zibilekoak, 50 zigor-arlokoak, 41 merkataritza-arlokoak, 50 ekintzak eskaintzekoak eta 1 kontuen epaitegiarena.

**2. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARAUAK ETA EGINTZAK ANTOLAMENDU JURIDIKORA AHALIK ETA GEHIEN EGOKITZEA**

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzan 138 txosten eta kontsulta eskatu dira 2018an. Horiez gain, 2017an sartu ziren baina 2018an jakinarazi ziren espedienteak ere badaude (14). Ondorioz, 2018an guztira 152 eskariri eman zaie arreta.

2018an artatutako eskarien artetik 37 ez dira igorri (horietako 2 dira 2017ko eskariekin lotuak), nahiz eta horietatik 11 soilik zeuden oraindik igortzeke urtea amaitzean. Erantzun gabeko 26 eskarien artetik, 10 erretiratu zituzten eskatzaileek eta 16 itzuli ditu zuzendaritzak.

***PROGRAMA***

*1218 RÉGIMEN JURÍDICO*

***RESPONSABLE***

*02 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO*

*VICECONSEJERO DE RÉGIMEN JURÍDICO*

***OBJETIVO***

1. *DEFENSA DE LOS INTERESES, NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO*
2. *LOGRAR LA MÁXIMA ADECUACIÓN AL ORDENAMIENTO JURÍDICO DE LAS NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO*
3. *IMPULSAR Y ANALIZAR EL DESARROLLO AUTONÓMICO*

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. DEFENSA DE LOS INTERESES, NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO***

*En la Dirección de lo Contencioso se han iniciado 3.895 nuevos asuntos, distribuidos según jurisdicciones: 2.551 Contencioso-administrativa (de los cuales, 2.050 procedimientos abreviados y 501 ordinarios, 24 de protección jurisdiccional de los derechos fundamentales de la persona y 2 de autorización de entrada), 771 de Justicia gratuita, 332 de Laboral, 73 de Civil, 50 de Penal, 41 de Mercantil, 50 de Ofrecimiento de acciones y 1 de Tribunal de Cuentas.*

***2. LOGRAR LA MÁXIMA ADECUACIÓN AL ORDENAMIENTO JURÍDICO DE LAS NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO***

*En la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo han sido solicitados 138 informes y consultas en 2018. Además de éstos están los expedientes con entrada en 2017, pero que fueron informados en 2018 (14). Consiguientemente en 2018 han debido ser atendidas un total de 152 solicitudes*

*De las solicitudes atendidas en 2018, 37 no se han emitido (2 de ellas corresponden a solicitudes de 2017), si bien de las mismas solo 11 estaban aún pendientes de emisión al finalizar el año. De las 26 que no son respondidas, 10 fueron retiradas por los propios solicitantes, y 16 han sido devueltas por la dirección*

Itzulketen atalean, honako hauek izan dira arrazoiak, kasuan kasu: Aholku Batzorde Juridikoari dagokiola informazio hori ematea (2) edo Auzibide Zuzendaritzari (1), ez dela zertan nahitaezko legezkotasun-txostena eman (11) edo eskaria errepikatua dela edo lehendik erantzun dela (2).

Hori guztia dela eta, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzan 2018an 115 eskariri eman zaie erantzuna, eta 113 txosten eta legezko iritzi eman dira (gai komun bakarrari buruzko hiru eskari erantzun ziren txosten bakarrean). Aurrekoetatik 98 dira nahitaezko legezkotasun-txostenak (lege-aurreproiektu 1, 34 xedapen orokor, 63 hitzarmen edo protokolo) eta 15 legezko iritzi daude nahitaezkoak ez diren kontsultei erantzuteko.

*En el apartado de las devoluciones, estas se han debido, según los casos: por corresponder en algún caso su emisión a la Comisión Jurídica Asesora (2) o a la Dirección de lo Contencioso (1), por no corresponder informe de legalidad preceptivo (11) o encontrarse la solicitud duplicada o ya atendida (2).*

*Conforme a ello, en la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo en 2018 se han atendido 115 solicitudes con la emisión de 113 informes y opiniones legales (tres solicitudes correspondientes a un solo tema común fueron atendidas con un solo informe). De los anteriores 98 son informes de legalidad preceptivos (1 Anteproyecto de Ley, 34 Disposiciones normativas de carácter general, 63 Convenios o Protocolos) y 15 opiniones legales en respuesta a consultas no preceptivas.*

## 3. GARAPEN AUTONOMIKOA INDARTZEA ETA AZTERTZEA

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzan legediari, jurisprudentziari eta doktrinari buruzko 33 txosten egin dira; jurisprudentziaren gaineko 8 iruzkin egin dira, epaiketa aurreko gai 1 kudeatu da, eskumenen gaineko 2 gatazka bideratu dira, eta konstituzioaren aurkako 3 errekurtsori erantzun zaie.

## *3. IMPULSAR Y ANALIZAR EL DESARROLLO AUTONÓMICO*

*En la Dirección de Desarrollo Estatutario se han realizado 33 informes sobre legislación, jurisprudencia y doctrina; 8 comentarios jurisprudenciales, 1 cuestión prejudicial, 2 conflictos de competencias y 3 recursos de inconstitucionalidad.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4712 ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN HIZKUNTZA NORMALKUNTZA | *4712 NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA* |

| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
|---|---|
| 02 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *02 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIA | *DIRECTOR DE FUNCIÓN PÚBLICA* |

**HELBURUA**

1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEA

***OBJETIVO***

*1. NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA*

**BETETZE MAILA**

**1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEA**

Herri Ardularitzaren Euskal Erakunde autonomoak bere programan adierazitako helburu berberak ditu programa honek.

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA***

*Tanto los objetivos como el grado de cumplimiento de este programa son los señalados en la del Organismo Autónomo Administrativo Instituto Vasco de la Administración Pública.*